

María Juana Farinango

Ekuadorreko ketxua, hezkuntza langilea

«Alfabeto bakarria sortzen saiatzen ari gara»

Garabide Elkartearen bidez Euskal Herrian izan den lagunetakoa da María Juana Farinango. Ekuadorreko ketxua da eta hezkuntzan aritzen da lanean. Etxe giroan bai, baina irakaskuntzan oraindik bide luzea egiteko duen hizkuntzaz aritu zaigu.

ALVARO HILARIO PÉREZ
DE SAN ROMÁN

Argazkia: Iñigo Azkona



“Estatuak emandako datuen arabera –oso fidagarriak ez dira– lau milioi gara ketxuaz hitz egiten dugunok”.

GERTAERA ASKOK asalatu dute Ekuador azken hamar urteotan, hala nola, indigenen Pachakuti mugimenduak egindako protestek eta ekonomiaren dolarizazioak. Haien ondorioz, gaur egun Rafael Correa da presidente. Joan den irailean, botoen %67 lortuta, konstituzio berria onartu da.

María Juana Farinango ketxua gaztea Pichincha probintziakoa da eta Ekuadorreko hezkuntza sistema kulturarteko eta elebidunean egiten du lan. Berak hurbilduko gaitu Hego Amerikan hemeretzi milioi pertsonak hitz egiten duten hizkuntzara, ketxuara. Ia 80.000 dira Ekuadorren, oinarritzko hezkuntzan, ketxua ikasten duten umeak.

Zer esan nahi du kulturartekoa eta elebiduna den hezkuntzan lan egiteak?

Quito hiriburua duen Pichincha probintzian egiten dut lan, hezkuntza sistema kulturarteko eta elebidunean, hots, eskola elebidunetan. Ekuador osoan Estatuak onartutako sistema da hori. Nahi genuke irakasgai guztiak ketxuaz egitea, Mendebaldeko jakintza ketxuaz irakastea, baina gureak, egun, hizkuntzaren lehenengo ezagupena sortzeko baino ez du balio. Ketxua hainbat orduz irakasten dugu, beste irakasgai bat bailitzan. Bestalde, curriculum a bera, oraindik ere, gaztelaniaz egiten dute. Dena dela, hizkuntza irakastea oso zeregin zabala da: gure lurrari, ekoizpenari lotutako hizkuntza da; gure hizkun-

tza gure mundu-ikuskeraren isla da. Hizkuntzak gure kulturaren hainbat balore islatzen ditu eta horiek guztiak galtzea ez dugu nahi. Hizkuntzaren bitartez islatzen dira familien batasuna eta auzolana, arazoak konpontzeko dugun modua, ekonomia ulertzeko dugun manera. Ketxua irakastea hizkuntza irakastea baino gehiago da: komunitatea ardatz hartuta ulertu behar dugu hezkuntza. Komunitatearen ekonomiak, esaterako, ez dakar jendearen arteko borrokarik, denok aberasteko tresneria da. Guk nahi duguna da ketxuak islatzen dituen balore oro hezkuntzan agertzea. Irakasleekin egin nahi dugu lan nortzuk garen eta zer izan nahi dugun jakiteko. Material pedagogikorik –liburuak,

ikusentzunezkoak— ez dugu eta gure asmoa da irakasleak beraiek material hori kexuaz egiteko gai izatea.

Orain arte izan ditugun eskemak, gurea mespretxatzera garamatzaten eskemak, alboratu behar ditugu. Gure ustez, hartu eta eman egin behar dugu, harremanak egon daitezela kulturen artean. Herri guztiek izan dute inguruarekiko lotura, gaur “garapen-keria”ren eraginez desagertuta dagoena. Baliabideak datozen belaunaldientzat gorde nahi ditugu, denon arteko elkarbizitza hedatu eta sustatu. Horrela ulertzen dugu bizitza. Hizkuntzak esandako hori guztia islatzen du.

Zenbat kexua hiztun dago Ekuadorren? Eskolan hedatuta al dago?

Ia hamalau milioi biztanle gara Ekuadorren. Estatuak emandako datuen arabera —oso fidagarriak ez dira—, lau milioi gara kexuaz egiten dugunok. Hiztun kopurua beherantz omen doa; Estatuak egiten dituen inkestak, behintzat, horrelako egoera ziurtatze-
ra zuzenduta daude.

Kexuak lau dialekto ditu. Familian erabiltzen da batez ere eta eskolan zein unibertsitatean ez da asko hedatu.

Bestalde, ezin dugu ahaztu, kexua ez ezik, Ekuadorren badi-rela beste hamahiru herri —suhar, txatxi, mestizoa, atxuar, awa, huaos, tasatxila, shiwyar, zaparo, epera, besteak beste— dagozkien hizkuntzekin.

Kexua araututa al dago?

Arestian esan dudan legez, hainbat dialekto ditugu. Alfabeto bakarra sortzen saiatzen ari gara eta horren harira eztabaidak ditugu. Euskal Herrian baliteke batasuna beharrak eragindakoa izatea, baina gurean, ugaritasuna

kontuan hartuta, konplexuz bete gara batasun bidean. Ezberdintasunak tokian tokikoak dira, ez dakigu hizkuntza zelan arautu. Ez dakigu zelan egin gauza berriak izendatzeko, hitz berriak sortzeko. Horiexek dira, besteak beste, iaz sortu zen hizkuntz akademiak dituen erronkak. Zaila da bidea, bitartekorik ez dugulako.

“Kexua hainbat orduz irakasten dugu, beste irakasgai bat bailitzan. Bestalde, curriculum bera, oraindik ere, gaztelaniaz egiten dute”

Lan egin beharra daukagu esparru batean baino gehiagotan. Eskolan, adibidez, hizkuntzaren batasuna bultzatzen hasiak gara, baina bide laburra egin dugu eta oraingoz ezin dugu egindakoaz ondoriorik atera. Azken batean, guk nahi duguna hizkuntzari prestigioa ematea da.

“Kexua irakastea hizkuntza irakastea baino gehiago da: komunitatea ardatz hartuta ulertu behar dugu hezkuntza”

Hizkuntzari prestigioa emateko edo erabilera areagotzeko, besteak beste, funtsezkoa da norbere hedabideak izatea.

Idatzizkorik ez dago, irratia bai. Komunitateetan erabiltzen dituzte, batez ere. Irratiek, baina, legeak bete

behar dituzte, baimenak eskatu udaltan, Komunikazio eta Defentsa Ministerioan... Gure irratia mugatzea helburu duten bideak dira horiek. Irratiak nahi ditugu garenaz berba egiteko, gure herriaz, egiten dugunaz, herri bezala ditugun ametsaz hitz egiteko, beste herriei elkarbizitzeko ezagutu behar dugun munduaz berba egiteko.

Hori guztia ez da merkatua gobernatzen duten hedabide handien gogoko; ez zaie komeni, ez digute irratia sortzeko baimenik ematen. Gure buruaz, gure gaitasunaz, berba egiten ari garela ohartzen direnean, gure buruarenganako konfiantza hazten doala konturatzen dira. Horixe gure adierazpen askatasuna mugatzeko zergatia. Telebistan are nabariagoa da joera hori.

Hainbat matxinada urte eta gero, Ekuadorren konstituzio berria duzue. Haren arabera, Ekuador estatu multinazionala al da?

Ez du kexua hizkuntza ofizial moduan onartzen, bai printzipioz, baina ez ekintzetan. Esate baterako, ez dago kexua irakaskuntzan erakusteko aurrekonturik.

Nik hezkuntzan egiten dut lan eta estatuak barneratu dituen Mendebaldeko hainbat kontzeptuk irentsi gaituela ziurtatu ahal dut. Adibidez, politika alorrean, indigenok Pachakuti mugimendua sortu genuen, tokian tokiko gobernu erakundee-
tan kontzeptu komunitarioa defendatzeko. Estatuaren egitura, baina, gure herriaren adierazpidea oztopatzen duen jarrera hierarkikoen mesedetara dago eginda. ■

Babeslea: Donostiako Euskararen Udal Patronatua

Donostia solasean
Euskara XXI. mendean
hitzaldi zikloa



Hizlaria:
Txema Preciado

Larri-gorrian egonda geure egoera zurretzen...?
Beltza da gero, euskal koloreen geroa!

Errealitate objektiboak direneko uste okerraren gainetik, koloreak nagusiki norbanakoengan ematen diren sententzioak dira; hala ere lengoaiarik gabe ez lirateke existituko, kulturalki hizkuntzaren bitartez ikasten baitugu koloreak ikusten. Kultura ezberdinekin era ezberdinez ulertzen eta antolatzen dute eremu kromatikoa. Hitzaldian euskal ikuskeran murgildu nahi da, panorama deskribatuz, gakoak aipatuz eta eraikitza kultural honetan euskararen garrantzia agerian jarri ere.

2008ko azaroaren 19an, 19:00etan, Lugaritz kultur etxean




